



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

LEIRE GORDO CASTRO

zinegotziak

JOSE M^a SARASOLA ETXEBERRIA

AITZIBER ABASOLO DE LA PEÑA

ENEKO ELOLA JAUREGI

MIREN JOSUNE ZUBELDIA

ETXEBERRIA

IGO EIZAGIRRE SAEZ

OIER MINTEGI ZEBERIO

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2016eko apirilaren 18an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Leire Gordo Castro izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidentek, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

26/2016 Dekretua

42/2016 Dekretua

47/2016 Dekretua

50/2016 Dekretua

53/2016 Dekretua

69/2016 Dekretua

73/2016 Dekretua

88/2016 Dekretua

104/2016 Dekretua

38/2016 Dekretua

45/2016 Dekretua

49/2016 Dekretua

51/2016 Dekretua

59/2016 Dekretua

70/2016 Dekretua

76/2016 Dekretua

94/2016 Dekretua

112/2016 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

114/2016 Dekretua
116/2016 Dekretua
121/2016 Dekretua
125/2016 Dekretua
131/2016 Dekretua
138/2016 Dekretua
143/2016 Dekretua
167/2016 Dekretua
188/2016 Dekretua

115/2016 Dekretua
119/2016 Dekretua
123/2016 Dekretua
127/2016 Dekretua
132/2016 Dekretua
141/2016 Dekretua
162/2016 Dekretua
186/2016 Dekretua
190/2016 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

3.- 2015 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA

2015 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen Lizartzako Udaleko 2015eko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

1.- Lizartzako Udaleko 2015eko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

Diruzaintzako Izakin Likidoak, 2015-12-31n		136.813,89
Kobratu gabeko saldoak, 2015-12-31n		+ 8.490,13
Aurrekontuko zordunak Aurrekontuz kanpoko zordunak - Aplikatu gabeko kobrantzak	+ 0,00 + 8.490,13 0,00	
Ordaindu gabeko saldoak, 2014-12-31n		- 32.714,40
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak Sarreraren aurrekontuko hartzekodunak Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak - Aplikatu gabeko ordainketak	- 21.996,30 0,00 - 10.718,10	



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Diruzaintzako gerakin gordina		112.589,62
Saldo kobragaitzak	-----	
Diruzaintzako gerakin likidoa		112.589,62
Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:	-----	
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina		112.589,62
Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza		57.193,29
Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza		
Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik		54.757,38
Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik		-----
Aurrekontu emaitza		111.950,67
Txerta daitezkeen kreditu gerakinak		-----
Txertatu ezin diren kreditu gerakinak		82.872,67
Kreditu Gerakinak, guztira		82.872,67

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

3.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea ospatuko den hurrengo bileran.

2015 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2015 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientearen agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikuluko horren aplikazioan, kontuak onartzeagatiko erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

4.- KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikuluko ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

PROPOSATZEN DA:

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
933.011.01.01	Maileguen Amortizazioa	23.115,84	28.821,73	51.937,57
GUZTIRA		23.115,84	28.821,73	51.937,57

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	-----	28.821,73	28.821,73
GUZTIRA		-----	28.821,73	28.821,73



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Kreditu Gehiagarrien bidez egin beharreko Kreditu aldaketarako 1 zk.ko espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- MAILEGUEN AMORTIZAZIOA

Udal honek baditu 2001 eta 2004 urte ezkerotik bi mailegu KUTXABANK-ekin kontratatua, Lizartzako herrian, hainbat inbertsio ordaintzeko.

Gaur egun, 46.168,33 € daude amortizatzen, eta amaiera epeak, 2016 eta 2021 urteetan dira.

Udal honek gaur egun duen egoera ekonomikoa aztertu ondoren, posible ikusten da, kopuru hori aurrez amortizatzea. Horrela Udalaren Aurrekontua garbia geldituko litzateke, inongo zorrik gabe.

Beraz, KUTXABANK-ekin ditugun bi mailegu hoiak erabat amortizatzea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

6.- IRUNZUBI POLIGONOA. KONTZESIOAREN ADJUDIKAZIOA

LIZARTZAKO IRUNZUBI POLIGONOAN DAGOEN LURSAILAN EGURRA GORDETZEKO eta ESPALOIAK KONPONDU ETA BIDE BERRIA ERAIKITZEKO URBANIZAZIO EGITASMOAREN EMAKIDAREN ADJUDIKAZIO PROPOSAMENA

LEHENENGOA. 2016ko urtarrilaren 25eko ebazpenaren bidez, adierazitako kontratazioarako espedientea hasia erabaki zela, proposatutako kontratazioaren behara eta egokitasuna adieraziz

BIGARRENA. Emakidaren ezaugarriak kontuan hartuta, publizitaterik gabeko prozedura da egokiena.

HIRUGARRENA. 2015eko abenduaren 29an aplikatu behar den legeriari, jarraitu behar den prozedurari, eta kontratua onartzeko eta esleitzeko organo eskudunari buruzko idazkaritzaren txosten-proposamena igorri zen.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

LAUGARRENA. 2016ko urtarrilaren 20an kontratuaren esleipena arautzeko administrazio-klausula berezien eta baldintza teknikoen agiria idatzi ziren, eta espedienteari erantsi.

BOSGARRENA. 2016ko urtarrilaren 25eko Udal Batzarraren erabakiaren bidez espedientea eta LIZARTZAKO IRUNZUBI POLIGONOAN DAGOEN LURSAILAN EGURRA GORDETZEKO eta ESPALOIAK KONPONDU ETA BIDE BERRIA ERAIKITZEKO URBANIZAZIO EGITASMOAREN EMAKIDA prozedura irekiaren bidez esleitzeko administrazio-klausulen agiriak onartu ziren, eta, era berean, emakida-kontratua esleitzeak berekin dakarren gastua baimendu.

SEIGARRENA. 2016ko otsailaren 2ko, 3. Zenbakiko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren arabera, eskaintza hauek aurkeztu zirela:

— **BASALAN ARROSPIDE S.L.**

ZAZPIGARRENA. 2016ko otsailaren 24an espedientean idatziz jasota dauden eskaintzak egiaztatu egin ziren.

ZORTZIGARRENA. 2016ko martxoaren 14an kontratazio-mahaia (eskaintzak baloratzeko eskumena duen organoa) eratu zen, eta emakida, BASALAN ARROSPIDE S.L.ri esleitzea proposatu zuen.

Adierazitakoa kontuan izanik, jotzen da espedientea aplikatu beharreko legeetan ezarritako izapidetzeari jarraiki egin dela, eta Udal Batzarrak onartu egingo du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 30/2007 Legearen 135.4 artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Horregatik, Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 175. artikuluekin bat, ebazpen-proposamen hau egin dut:

EBAZPENAREN TXOSTEN-PROPOSAMENA

LEHENENGOA. LIZARTZAKO IRUNZUBI POLIGONOAN DAGOEN LURSAILAN EGURRA GORDETZEKO eta ESPALOIAK KONPONDU ETA BIDE BERRIA ERAIKITZEKO URBANIZAZIO EGITASMOAREN EMAKIDA kontratuaren behin-behineko esleipena, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidezkoa, behin betiko esleipen bihurtzea. 2016ko martxoaren 14ko ebazpenaren bidez onartu zen esleipen hori.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

BIGARRENA. BASALAN ARROSPIDE S.L., kontratuaren esleipendunari, ebazpen honen berri ematea eta deitzea kontratua sinatzeko. Kontratua Lizartzako Udaletxean, 2016ko apirilaren 25ean, arratsaldeko 19:30etan sinatuko da.

Lizartzako Irurzubi Poligonoan dagoen Lursailan Egurra Gordetzeko eta Espaloiak konpondu eta bide berria eraikitzeko urbanizazio egitasmoaren emakidaren adjudikazio proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA. SENTENTZIAREN JAKINERAZPENA

Donostiako Administrazioarekiko Auzien 1 Zk.ko Epaitegitik bidalitako, 192/2014 Arrunta zenbakia duen, 2014 urteko Diru Laguntzen Plan Estrategikoari buruz luzatutako eskaeraren berri ematen da.

Bertan eskatzen denez, Udal honek, Epaitegi horri jakinerazi behar dio, sententzia betearaziko duen organoa zein izango den.

Beraz, sententzia betearaziko duen organoa, Udal Batzarra izatea proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

8.- LANKIDETZA HITZARMENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKOA, UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEARI BURUZKOA

Idazkaritzak 2016ko apirilaren 4an egindako txostena ikusi da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren onartzeko aplikatu daitekeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2016ko martxoaren 30ean jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2016ko apirilaren 4ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatuta eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentua eta Lizartzako Udala Toki Erakundearen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren testua onartzea, eta honela dio:

LANKIDETZA HITZARMENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTSUAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKOA, UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO.

Donostian, 2016ko martxoaren 18an.

BILDURIK:

Alde batetik, Imanol Lasa Zeberio jauna, Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatua.

Beste alde batetik, Leyre Gordo Castro, Lizartzako Udaleko alkatea, Udalaren izen eta ordezkari izan, karguak ematen dizkion eskumenez.

Bi aldeek gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri ordezkari izan dituzten erakundeak egintza honen bidez behartzeko, eta hartara lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea adostu dute ondoren zehazten denaren arabera:

AURREKARIAK

I.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernanzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentura atxikita dagoen Herritarren Partaidetzarako Foru zuzendaritza ha herritarren partaidetza sustatzeko ardura duen organoa eta partaidetza prozesuak egiteko ardura duen organoa, eta 2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauari jarraikiz, funtzio hauek ditu:

a.- Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren partaidetza eta jabeakuntza sustatzen dituzten politikak planifikatzea eta ezartzea.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- b.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarren partaidetza programa planifikatzea, zuzentzea, koordinatzea eta ebaluatzea, gainerako departamentuekin lankidetzan.
- c.- Partaidetzaren zeharkakotasuna eta herritarren jabekuntza sustatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardueretan.
- d.- Herritarren partaidetza sustatzen duten programak eta ekintzak diseinatzea.
- e.- Gainerako euskal herri administrazioekin elkarrizketa eta koordinazio ekintzak burutzea partaidetzari dagokionez.
- f.- Partaidetzaren eta jabekuntzaren elorrean lan egiten duten elkarteekin, fundazioekin, GKEkin eta gizarte mugimenduekin lan egitea.
- g.- Lankidetzaren sustatzea herri administrazioekin eta partaidetzaren eta jabekuntzaren alorrean lan egiten duten beste erakunde batzuekin, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo.
- II.- Partaidetza prozesuetan, ezinbestekoa da Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak kontrastatzea zein den zuzendaritzaren ekimenetan parte hartzen duten pertsonen ohiko egoitza.
- III.- Udalaren errolda da udalerrri hrrretako auzo guztiak agertzen diren administrazio erregistroa. Datu horiek bertan bizi direla eta ohiko etxebizitza non duten frogatzen dute.
- IV.- Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak modu telematikoan egiazta ditzake Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzaren ekimenetan parte hartzen duten pertsonen egoitza-udalerrriari buruzko datuak.
- V.- Errolda egiaztatzeko datua, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak eskatuta, Informatika Zerbitzuen Foru Elkartearen bidez kudeatuko da (aurrerantzea, IZFE SA).
- VI.- IZFEk pertsona guztien baimena eskatuko du, zeinen ohiko etxebizitza kontrastatu beharko baitu Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak eskatuta, Hitzarmen honi atxikita doan Eranskinak dioenari jarraikiz.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

VII.- Adierazitako guztiagatik, bi aldeek lankidetzaz hitzarmen hau sinatzen dute, klausula hauek jarraikiz:

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea

Honen xedea da hainbat baldintza ezartzea, zehazte aldera Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuetan parte hartuko dutenek Gipuzkoako udalerrri batean dituzten erroldari buruzko datuak dira. Orobat da xede Zuzendaritza honek gorde behar duen konfidentzialtasun markoa zehaztea.

Bigarrena.- Izaera pertsonaleko konfidentzialtasuna eta trataera

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak dio badakiela eskuratzen duen informazio guztia, eta bereziki izaera pertsonaleko informazioa, erabat konfidentziala eta, eta, ondorioz bere ardurapena, hauek egitera behartzen du bere burua:

- .- Lehen klausulan zehaztutako xedera bideratzea informazioa, informazio hori ezin diolarik besterik eman.
- .- Egokitu dakioken edozein betekizun betetzea, indarrean dagoen araudiari hertsiki jarraikiz, bereziki Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko Lege Organikoari eta haren Garapen Erregelamenduari.
- .- Informazioa ez jakinaraztea besterik, ezta gordetzeko ere.
- .- Informazioa eskuratu ahal izatea haren berri izan gabe bere betekizunak ezin bete dituen langileari bakarrik.

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritza izango da sekretuaren betekizuna betearaztearen arduraduna, eta behar adina neurri hartu beharko ditu horretarako.

Bai Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak, bai bertako langileen apartatu honetan ezarritako konfidentzialtasun eta sekretu profesionalaren betekizuna bete beharko dute.

Hirugarrena.- Segurtasun neurriak



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak izaera teknikoko eta anolakuntzako neurriak hartuko ditu, hartara eskuratzen duen informazio guztiaren konfidentzialtasuna gordetzeko, bereziki izaera pertsonaleko informazioa. Horrela, datuen segurtasuna bermatuko du et saihestuko da aldatzea, galtzea edo baimenik gabe inork eskuratzea.

Laugarrena.- Printzipio ezargarriak

Hitzarmen hau printzipio eta arau hauei jarraikiz arautuko da:

- .- Datuak funtzio eta beharretara egokitzea.
- .- Eskatutako datuen eta helburuen arteko proportzionaltasuna.
- .- Datuak igorri eta horietan sartzeko bideak seguruak izatea.
- .- Eraginkortasuna lortu eta kostuak murriztea.
- .- Datuak ezin transferitzea.

Dena dela, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak dagokion pertsonarenaurre baimena jasoko du erroldako dtuak eskuratu ahal izateko. Baimenaren bieztapena goreko da espedientean. Horri dagokionez, Lankidetza Hitzarmen honekin batera datorren Eranskinak aginduko du.

Bosgarrena.- Datuen izaera eta hitzarmenaren xedea burutzeko metodologia

Hitzarmen honen xede diren datuak Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuetan parte hartzen dutenen erroldatzea begiratzea baino ez da izango.

Horrela, kontrastatuko da Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuetan parte hartzen duten pertsonak beraiek azaldutako Gipuzkoako herrian erroldatuta daudela.

Hitzarmenaren xederako metodologiari dagokionez, sistema informatikoan bakarrik erabiliko dira: SFTP, FTPS edo SSL ea antzekoak. Edonola ere, sistema horiek izaera pertsonaleko datuak babesteko araudiak eskatzen dituen segurtasun, osotasun eta konfidentzialtasun berme guztiak bete beharko dituzte.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Seigarrena.- Ez betetzeak

Informazio hori gaizki erabili edo eskuratzearen ondoriozko zigor ardura, administrazio ardura eta ardura zibila gorabehera, edo isiltasun betekizuna ez betetzea gorabehera, eta eragin gabe Datuen Babesaren Espainiako Agentziari edo Datuen Babesaren Euskal Agentzari (2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak sortua) dagozkien funtzioei, alderdi batek Hitzarmen honetan bildutako betekizunen bat betetzen ez badu, beste alderdiak eskubidea izango du zuzenbide osoz eta berehala amaiarazteko.

Edozein arraozi dela eta amaituta badago, herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak, Hitzarmena gauzatzearen ondorioz eskuratu duen informazio guztia itzuli beharko du berehala, euskarria gorabehera.

Informazio hori itzuli arte, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak horiek ongi gordetzearen ardura izango du.

Zazpigarrena.- Ardura

Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak Hitzarmen honetan ezarritako betekizunen bat ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren ardura izango du, ez betetzea berea edo informazioa eskuratu dezakeen langileena izan.

Zortzigarren.- Indarrean sartzea eta indarraldia

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den unean, eta Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak, bere ardurapean, partaidetza prozesuetan parte hartzen dutenen erroldatzea begiratzeko egiten dituen partaidetza prozesuetara lotuta geratuko da.

Hemen jasotakoarekin beren adostasuna agertuz, alderdiek goiburuan ageri den tokian eta egunean sinatzen dute lankidetzak hitzarmen hau bi aletan.

ERANSKINA.- GIPUKOAKO ERROLDATZE UDALERRIA BAIEZTATZEA

Deskribapena: Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuetan parte hartzen dutenen Gipuzkoako udalerriko erroldatzearen baieztapena.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

1.- Helburua: Ikustea Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuetan parte hartzen dutenek adierazi duten Gipuzkoako Udalerrian erroldatuta ote dauden.

Informazio hori egiaztatzea ezinbestekoa da poblazioaren gaitasuna zehazteko, hartara partaidetza prozesu batzuetan parte hartzeko.

ARAU ZURIKETA

1/2010 Foru Araua, uztailaren 8koa, herritarren partaidetzari buruzkoa. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzari dagokio Partaidetza Programa gauzatzea.

2015eko ekainaren 24ko 24 Foru Dekretua, Foru Aldundido departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzen dituena.

1.1.- Eragindako pertsonaren baimena eskatzen da?

BAI. Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuak bideratzeko plataforma teknologikoek plataforman parte hartu nahi dutenei ohiko egoitza duten udalerriri buruzko informazioa eskatzen diete eta, horrekin batera, datu hori udal erroldarekin erkatu ahal izateko berariazko baimena.

2.- Informazioaren edukia:

Egiaztatzea Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak egiten dituen partaidetza prozesuetan parte hartzen dutenak beraiek adierazitako Gipuzkoako udalerrian dutela egoitza.

Horri dagokionez, aurretik erabiltzailearen baimena eskuratuta eta herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak gutxieneko datuak bidalita herritarren partaidetzako plataformen erabiltzailea identifikatu ahal izateko (NAN eta izen eta bizenak), bakarrik eskatuko da egiaztatzea ez interesatuak ohiko egoitza udalerriri horretan duen.

3.- Baieztapena egiteko prozedura

Baliabide telematiko seguruaren trukearen bidez, berrmatze aldera trukaturako datuen osotasuna eta konfidentziasuna.

4.- Maiztasuna



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Beraz, beharrezkotzat hartzen da Lizartzako Udala, 2016ko martxoaren 14 datarekin, Peñascal Cooperativa eta Tolosako udalak sinatutako lankidetzaz hitzarmenari atxikitzea lankidetzarako administrazio-hitzarmen bat sinatuz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 57. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2015eko abenduaren 14ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

ERABAKIA

LEHENA. Tolosako Udalak eta Peñascal Kooperatibak sinatutako lankidetzaz hitzarmenari atxikitzeko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan.

Tolosan, 2016ko martxoaren 14an

BILDURIK

Alde batetik, Olatz Peon Ormazabal, **TOLOSAKO UDALEKO** alkatea, Tolosako Udaleko idazkari Jose Luis Unanue Ugaldek lagunduta.

Bestetik, Guillermo Malcorra Altuna, ordezkatzeko duelarik **PEÑASCAL S.COOP.**, I.F.K. F-48537518 eta helbidea Tolosako Usabal Industrialdea hegoa 5C-n duena.

Hitzarmen hau formalizatzeko beharrezkoak diren gaitasun juridikoa eta jardutekoa elkarri aitortuta, nork bere erakundearen izenean jardunez,

ADIERAZTEN DUTE

Tolosako Udalak eta tolosaldeko beste udal batzuek zenbait zerbitzu eskaintzen dizkietela ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna dutenen kolektiboari, pertsona horien autonomia handitzeko asmoz.

Zerbitzu horien artean daude “laguntza-produktuak” izenekoak zeinak honela definitzen diren: “ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonen zuzendutako



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

tresna, ekipamendu edo sistema oro, ezgaitasun edo/eta mendekotasun hori prebenitu, orekatu, arindu edo ezabatzeko asmoarekin”.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak programa bat dauka laguntza-produktuen hornidurarako. Hala ere, ospitaleko altak, ustekabeen eta bat-batean gertatutako mendekotasunak (iktusak, istripuak...) eta horien antzeko egoeren larritasunaren aurrean, udalek, herritarrengandik hurbil egonik, berehalako erantzuna eman dezakete, eta batzuetan aldi baterakoa, harik eta Aldundiak ebatzi eta produktuak eman arte, pertsona horiei arreta beren etxean bertan emanez.

Tolosako Udala eta tolosaldeko beste udal batzuk zerbitzu hau ematen ari dira modu prekarioan, baliatuta zenbait pertsonak, gehiago behar ez dituztelako, emandako produktuez.

Zerbitzu hau hartzen ari den tamaina ikusita, bai Tolosako Udalak bai tolosaldeko beste udal batzuek uste dute beharrezkoa delabiltegi bakarra, mantentze egokia, erantzukizun zibileko estaldura...

PEÑASCAL S.COOPek, kontuan harturik bere lan-prestakuntzako jarduera, eta, zehatzago, bere Eguneko Zentroko eta gizareratze-enpresako jarduera, laguntza eman dezake, hurbiltasunez eta kalitateaz, tolosaldeko herritarrentzako gizarte-baliabideen eskaintzan, eta horrela erantzuna eman diezaioke bere lan-jardueraren subjektuek, alegia, baztertuta edo baztertzeko arriskuan dauden kolektiboek daukaten jarduera-nitxoak bilatzeko premiari...

Tolosan dituen instalazioek aukera ematen diote ezgaitasunean eta/edo mendekotasunean laguntzeko elementu-kopuru handia biltegitzeko. Era berean, metal-arloan egiten duen jarduerak aukera ematen du elementu horiek mantentzeko.

Tolosako Udalak eta Tolosaldeko beste udal batzuek interesgarritzat jotzen dute PEÑASCAL S.COOPek gizarte-bazterketako egoeran edo hala egoteko arriskuan dauden kolektiboekin egiten duen lana. Hori dela-eta, bidezkotzat jotzen dute harremanak arautzeko Lankidetzeta-hitzarmen bat egitea, honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

LEHENA - ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

PEÑASCAL S.COOPek kudeatuko du ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna duten pertsonentzako laguntza-produktuen biltegia, tolosaldeko udalen jabetza dena,



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Ian hauek egingo dituelarik: laguntza-produktu hauek bildu, biltegitatu, inbentariatu, garbitu, konpondu eta entregatu.

BIGARRENA - ZERBITZUAREN KOSTUA

Zerbitzua hiru ataletan banatuko da:

1.- Biltegitatzea, kontrola, garbiketa eta prebentziozko mantentzea.

Tolosaldeko udalek emandako inbentarioaren arabera, PEÑASCAL S.COOek toki bat erreserbatu du inbentario horretan zerrendatutako produktuentzat. Era berean, elementu guztiak kontrolatuko ditu informatikoki, eta urtero Peñascal S. Coop.ek tolosaldeako udalei helaraziko die memoria bat zerbitzuak urte horretan eduki duen erabilerarekin, baita inbentario xehetu bat bai biltegian bai utzita dauden laguntza produktuekin.

Kontrol horrek barruan hartzen ditu gauza eginkizun hauek: prebentziozko mantentzea, ikusizko gainbegiratzea, mekanismo eta engranajeak doitzea, artikulazioak koipeztatzea eta laguntza-produktuen garbiketa orokorra.

PEÑASCAL S. COOP.ek Erantzukizun Zibileko aseguru bat edukiko du estaltzeko elementuen egoeraren ondorioz erabiltzaileei sor dakiekeen edozein ezbehar.

Gaur egun zerbitzu hau baloratuta dago 400 €/hileko (gehitu egingo da dagokion BEZaren arabera). Urtero Peñascal S.Coopekin adostuko da zerbitzuaren koste ekonomikoa (laguntza produktuen gordailua eta erabilera irizpideak aintzat hartuta).

2.- Mantentzea eta konponketa bereziak

Elementuren batek esku-hartze berezia behar duenean, PEÑASCAL S.COOPEk hornitzaile egokia bilatuko du eta TOLOSAKO UDALARI jakinaraziko dio, honek aurkeztutako aurrekontua onar dezan, hala badagokio.

Balorazioa egiten, teknikariak bilatzen eta zerbitzua enkargatzen eta ordaintzen egindako lana PEÑASCAL S.COOPEk egingo du eta, behin konponduz gero, konponketaren kostua fakturatuko dio TOLOSAKO UDALARI.

3.- Etxera eramatea



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Aukeran, laguntza-produktuak PEÑASCAL S.COOPeko biltegian jaso edo entregatu ahal izango dira, edo, bestela, aukera dago PEÑASCAL S.COOP arduratzeko etxera eramateaz, laguntza-produktua nola erabiltzen den azaltzeaz eta/edo jasotzeaz.

Horretarako, tarifa bat ezarri da zonaldeka, kostu desberdinekin:

- Tolosa..... 25,00 €
- Asteasu..... 40,00 €
- Berastegi.....40,00 €
- Tolosaldeko besteak... 35,00 €

Tarifa, hala behar bada berari dagokion BEZ mota gehituta, udal bakoitzaren irizpidearen arabera ordainduko da (segun erabiltzaileak bizilekua non duen), ordaintzailea izango delarik edo erabiltzailea edo zerbitzua eskatu duen udala.

HIRUGARRENA - GIZA BALIABIDEAK ETA MATERIAL-BALIABIDEAK

Proiektu hau garatzeko, PEÑASCAL S.COOPek honako giza baliabide eta material-baliabide hauek ditu:

- Lokal bat, 300 m koadro dituen, Usabal industrialdean. Lokal horretan aisa egin daitezke laguntza-produktuen zamalanak.
- Oinarrizko mantentzean eta garbiketan gaituta dauden langileak.
- Biltegiaren eta entregen kontrol informatizatua.
- Erantzukizun Zibileko Asegurua, laguntza-produktuen erabileratik etor litezkeen ezbeharrak estaltzeko.
- Furgoneta bat, produktuak etxeetara eramateko.

LAUGARRENA - ERREGIMEN EKONOMIKOA

Tolosako udalak hiru hilez behin ordainduko du hitzarmen honetako BIGARREN klausulan aurreikusitako zenbatekoa. Horretarako, Peñascal S.Coopek udal-zerbitzuei bidaliko dizkie, batetik, erabiltzaileen zerrenda eta, bestetik, eskatutako ordainketa dagokion hiruhilekoan izandako laguntza-produktuen mugimendua.

Tolosaldeko udalek hitzarmen hau sinatzen denean egingo dute dagokien zenbatekoaren ordainketa. Urtean ordainketa bakarra izango da, udalerrri bakoitzeko biztanleen proportzioan kalkulaturik. Proportzioen kopuruak jasota daude dokumentu honetako 1. Eranskinean.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

BOSGARRENA - DATU PERTSONALAK.

Erabiltzaileen datu pertsonalak une guztietan tratatuko dira, batetik, indarrean dagoen datuak babesteko araudia betez eta, bestetik, datuok tratatzeko baimena dutenak konfidentzialtasun osoz aritzen direlarik.

Eskaeren deribazioari dagokionez adosten da tolosaldeako udaletako ongizate sailek eskaera eskaneatua bidaltzea email bitartez Peñascal S.Cooperi; zioa da, azkartzea utzitako laguntza teknikoen etxera eramatea edo biltegian jasotzea. Horrez gain, bide bera erabiliko du Peñascal S.Coopek laguntza produktuak jaso izanaren agiria helarazteko dagokion tolosaldeako udaleko ongizate sailari.

SEIGARRENA- HITZARMENA ETETEKO ARRAZOIAK.

PEÑASCAL S.COOPek ez baditu betetzen hitzarmen honetatik datozen obligazioak, Tolosako Udalak izango du hitzartutako zenbatekoen ordainketa etetea eta hitzarmena indarririk gabe uztea.

ZAZPIGARRENA - HITZARMENA AMAITZEKO ARRAZOIAK.

Hitzarmen hau amaitzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

- Klausula bat , edozein dela ere, ez betetzea.
- Indarraldia amaitzea.
- Sinatzailek adostasunez hala erabakitzea.
- Aldeetako batek uko egitea, bi hilabete lehenago abisatuta.

ZORTZIGARRENA - DESADOSTASUNAK HITZARMENAREN INTERPRETAZIOAN.

Tolosako Udaleko Gobernu Batzordeak ebatziko ditu, bide administratiboan, hitzarmen honen interpretazioan sor litezkeen desadostasunak eta, hala behar bada, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak.

BEDERATZIGARRENA – INDARRALDIA.

Hitzarmen hau indarrean sartuko da bera sinatzen den egunean, baina, dena dela, LAUGARREN klausulan xedatutako erregimen ekonomikoaren ondorioak 2016eko urtarrilaren 1etik aurrera izango dira aplikagarri.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Kontratua indarrean egongo da 2016ko abenduaren 31ra arte, urtero luzatu egin ahalgo da baina gehinez 2 urte gehiago. Edozein kasutan, kontratuak ezingo du kontratu txiki bati dagokion kopurua gainditu.

Kontratu honen luzapenerako tolosaldeako udalei proposatuko zaie luzapena non zehaztuko diren laugarren klausulan azaldutako zenbatekoak.

Dokumentu hau irakurrita, eta adostasuna frogatzeko, agertutako alderdiek sinatu egiten dute, bi aletan eta ondorio bakar baterako, hasieran adierazitako tokian eta egunean.

BIGARRENA. Erabaki hau hitzarmenaren testuarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.2. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

HIRUGARRENA. Alkateak, udalbatza honetako presidente den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

10.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Leire Gordo Castro

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia